



20. Euskal Denda

EUSKAL ARTISAU SEKTOREAREN AZOKA
LA FERIA DEL SECTOR ARTESANAL VASCO
FERIA DU SECTEUR ARTISANAL BASQUE

2015-ABENDUAK 4-8
4-8 DICIEMBRE-2015
DURANGO (BIZKAIA)

Parte-hartze arau orokorrak

- Deialdi honen eremua ondoko Lurralde Historikoak hartzen ditu: Araba, Benafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoa . Erakusgai jarriko diren produktu guztiek aipaturiko lurraldeetan beharko dute eginak izan.
- Ezinbesteko baldintza izango da erakus eta saltzen diren gai guztiak artisau berak egin eta ekoiztutakoak izatea. Egokitutako stand-ean artisau bakoitzak bere ekoizpenak soilik azaldu ahal izango ditu. **Ez da produkturik onartuko artisauak berak egindakoa ez bada.**
- Documentazioa
 - Eskaera-orria ondo beteta; era telematikoan egin daiteke ondoko helbideetatik:
<http://euskaldenda.info>
<http://euskaldenda.blogspot.com>
 - Dagokion eskualdeko eskulangile-eroldan izena emanda egotearen egiaztagiri **eguneratua** erantsi beharko zaio eskabide-orriari edo artisau txartela.
 - Osasen Erregistro-errola, manipulatzaila-txartel eta EJZ. (Iazko edizioan egon ez zirentzat)
 - Autonomoetako azken 3 ordainagiriaren fotokopia.
 - Konpromiso eta pribatutasun eskutitza.
 - Argazki txikia (NAN) bat.
 - Kurrikulum profesional labur bat.
 - Aurkeztu beharreko produktuen zerrenda, prezioak eta erabilitako lehengaiak zehaztuta.
 - 5 argazki (lau saltzen diren objetuenak eta bestea stand-arenak). (Hobeto formatu digitalean .JPG ó .TIF)
***(EZ dira argazkien fotokopiarik onartuko.**
* Hautatuak izan diren artisauen curriculumak feria amaitutakoan itzuliko dira
*** Ez dira tramitatuko guztiz bete barik dauden eskaerak.**
- 4. Eskabide-orriak jasotzeko epea uztaila 15-ean itxiko da.**

Interesdunak, ESKABIDE-ORRIA, eta gainontzeko agiri osagarriak, datuak argi eta garbi idatzirik, hauetako helbide batera bidali behar dituzte:

 - [EUSKAL DENDA 306 posta kutxa 48200 Durango \(Bizkaia\)](mailto:artisautza@arbaso.com)
 - [e-mail: artisautza@arbaso.com](mailto:artisautza@arbaso.com)
- Erakusketariei irailaren jakinaraziko zaie Antolaketa Batzordearen erabakia.
 - Parte hartzaile bakoitzari dagokion lekunea ezin izango da aldatu ezta gainditu ere, antolatzaileen idatzizko baimena izan ezean.
 - Onartutako tailerrak Euskal Dendaren web gunean eta blogean jarriko ditugu.
 - Antolatzaileek erreserbatuta utzi ditzakete zenbait eskaera eta aztertu egingo luke horien parte hartzea, onartutako erakusketarietatik baten batek araudia edo stand ordaintzeko epea beteko ez balitz.
 - Onartuta dagoen erakusketariak parte hartzeari uko egingo balio urriaaren 18a baino geroago, galdu egingo luke aurreratutako dirua.
- Orri informatiboak direnez, orri hauek jasotzeak ez du azokan parte harteko eskubiderik ematen. Etortzeko baliodun titulu bakarra ONARPEN ESKUTITZA izango da, aukeratutako artisauei soilik emango zaiena.
- Parte hartzen duten enpresei honakoak baloratuko zaizkie
 - Produktuen kalitatea eta erakusteko duten itxura.
 - Standean, jendurrean, titularra bera egotea.
 - Jendurrean erakustaldia egiteko konpromisoa.
 - Aurreko edizioetako parte hartzea ebaluatzea.
- Oinarriotan ageri ez den edozein gertakizunen aurrean, Azoka Antolatzaileak, Azokaren burutze onerako egokigoa deritzona erabakiko du.

9. Azokaren antolatzaileak ez dira Azoka egiten den aldian gerta daitezkeen lapurreta eta galereen kargu egingo.
10. Antolakuntzaren esku egongo da:
- Artisauaren bat azokan ez onartzea, baldin eta baldintza administratiboak edo kalitatezkoak betetzen ez baditu.
 - Onartutako tailer guztiei bisita egitea.
 - Antolakuntzak, stand batean irregulartasunik aurkituz gero, besterik gabe azokatik kanpo hutziko du artisaua. Horrela gertatuz gero kalte ordainak jasotzeko eskubidea galduko luke.
11. Artisauak stand-a oinarrietan ezarritako epearen barruan betetzen ez badu honen erabilera antolatzaileen esku geratuko da. Kasu honetan artisauak inongo indennizazio edo ordainketa jasotzeko eskubiderik ez du izango. Honetaz gain, bere ustetan arduetan huts egiten duen artisauak, irekitzeko/izteko ordutegiak, garbitasun arauak ez errespetatzea edota beste edozein arauen huts egitea dela eta), Azoka honetako ondorengo edizioetatik kanpo uztea antolatzaileen esku geratuko da.
12. **Debekatuta dago :**
- Argazkiak ateratzea artisau-erakusketariei eta produktuei, baldin eta antolatzaileek edota artisauak berak ez badu baimena eman.
 - Azoka esparruan bizikletak eta txakurrak sartzea (itsu-txakurrak sartu daitezke).

Informazio hau web gunean ere deskargatu daiteke: www.euskaldenda.info
<http://euskaldenda.blogspot.com>

Celebracion-lekua: Durango-merkatuko plazako azoka-esparrua, Uribarre kalea z/q.

-Ordutegia:-

Ostirala 4: 11:00 -14:30 - 16:30 - 19:30 - (20:00 -Artetsu Sariak San Agustin Kultur Gunea)
 Egunak 6, 7 : 11:00 - 14:30 - 16:30 - 21:00
 Asteartea 8 : 11:00 - 14:30 - 16:30 - 20:00

-Prezioak:-

	Stand - 2 *2 m.	Stand - 3*2 m.	Stand - 4*2 m.
Bizkaiko artisauek	180	270	360
Besteak artisauek	250	375	500
Elikadura	300	450	

STANDAK APAINTZEKO LEHIAKETA

20. euskal Denda dela eta, antolatzaileok erakusketarien katalogo bat egingo dugu. Bertan argitaratuko diren datuak izena emateko fitxatik aterako ditugu, beraz, ez da izango gure erantzukizuna akatsik edo hutsik badago. Urtekari modukoa izango da eta alde zuzenetik ordaindutako publizitate orriak ere izango ditu. Interesatuta bazaude, artisau, eskatzen dizugu antolatzaileekin harremanetan jartzeko, gaiari buruzko informazioa emango baitizugu.

STANDAK APAINTZEKO LEHIAKETA

1. Antolatzaileek gomendio egiten die erakusketariei apaintzea eta muntatzearen kalitatea ondo zaindu dezaten, beraien eta, oro har, azokaren onurako izango da-eta.
2. Irizpide horiei bultzada bat emateko asmoarekin, Euskal Dendaren antolatzaileek sari bi proposatuko ditu 20. Euskal Dendaren stand onenei:
 - Bisitarien Saria, azoka amaitutakoan jakinaraziko da.
 - Antolatze-batzordearen saria. ostiralean, 4, jakinaraziko da. Irabazleari berari esango zaio, egun berean, Artetsu Sariak emanaldira, 20:00ean, joan dadin saria hartzera.
 Sariak honakoak izango dira: diploma bat eta doan parte hartzea 21. Euskal Dendan, 4x2 m-ko stand batean.

OHARRA

Artisau-erakusketariren batek erakustaldi berezia egin edo ume edota nagusientzako ekintza edota tailerra antolatzeke asmoa badu, proposamen- txostena eta aurrekontua bidali behar dizkie antolatzaileei, aztertzeko.